

Zubietatik ozenki, la virtud de un puente

“Ezin nuen sinetsi nire jaioterriko zubi zaharra suntsitzen ausartuko zirenik. (...) Zubi horrek eman zion izena udalerriri (gure hizkuntzan, Mostar hitzak ‘zubi zahar’ esan nahi du). Bazirudien, gertatutakoa gorabehera, gai izango zela basakeriari aurre egiteko, eta balioen eta historiaren bermatzailea izango zela”.

“Guk ‘zaharra’ esaten genion, besterik gabe, adiskide edo aita bati buruz ariko bagina bezala: ‘zaharreen’ gelditzen ginen, ‘zaharraren azpian’ bainatzen ginen”.

Donostia 2016 Europako Kultur
Hiriburutzaren inaugurazioa

2016ko urtarrilaren 24an
12:00 etatik_14:30 etara
Irteera: Amara Plaza
Helduera: Kursaalera zabalgunea

Oinezko ibilbidea Urumeako azken bost zubietatik: zubi bakoitzean, **gizartearen hainbat esparrutako pertsonak** aldez aurretik aukeratutako **testuak irakurriko dituzte**, hainbat hizkuntza edo komunikazio-bide erabiliz. Testu horietan, **zubiek topagune gisa duten garrantzia** azpimarratzen da: kulturak elkartzen dituzte, hirian bizi diren eta bizi izan ziren **personen memoriak konektatzen dituzte**.

An aerial photograph of a city, likely Mostar, showing a river winding through it and a bridge crossing it. The city is densely packed with buildings, and the river is a prominent feature. The image is in black and white, with some color overlays for text boxes.

Zubietatik ozenki, *la virtud de un puente*

“Ekialdeak eta Mendebaldeak Mostarren eman zioten eskua elkarri, bai izaeran bai arkitekturan. Nire lankideek izen katolikoak, ortodoxoak zein musulmanak zituzten. Elkarrengandik bereizten gintuena gure izaera zen, eta ez gure izena.”

Zubiek igarobide gisa sortzen duten batasunaren ideia azpimarratu nahi dugu, zubi horietatik igarotzen diren kulturen arteko topagunearen irudia lantzeko.

Pertsonen kultura, hizkuntza, poesia, kantua eta literatura dituzte, bai eta beste kultura batzuekin partekatzen duten ikuspegi bat ere; kultura horiek guztiek Urumearen gaineko topagune horretan gurutzatzen dute elkar.

“Basakeriaren historian, hiriak eta bertako monumentuak suntsitu dituztenek tokirik lotsagarriena hartzen dute. Zubi zaharra Mostar hiriko monumentu bat baino gehiago zen. Haren presentzia, errealia ez zen errealia, sinbolikoa baizik.”

**Donostia
San Sebastian
2016.01.24**

12:00
Irteera

Amara Plaza
(hasierako bertsoa)

1 **Jose Antonio
Agirre zubia**
Irakurketak

2 **Mundaiz zubia**
Irakurketak

**Maria Kristina
zubia** **3**
Irakurketak

**Zurriolako
zubia** **5**
Irakurketa, umorea,
musika

4 **Santa Catalina
zubia**
Irakurketak

14:30
Helduera
Kursaaleko zabalgunea
Zurriola hondartzaren parean
(a cappella abestia)

"Zubi bat suntsitzen denean, gehienetan epaitondo moduko bat gelditzen da ertz batean edo bestean".

PREDRAG MATVEJEVIC 1993ko abenduaren 14a



ENERGIA-OLATUAK / OLAS DE ENERGÍA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
DSS2016.EU



guztiz. } razón
social,
territorio
y equidad s.l.